

Gai Librean



KOLDO IZAGIRRE

Mugak,
zainak eta
mugazainak

Donostia udalerriko mugetan eman nuen haurtzaroa, langile etorkinen txabolategietan ikasten eta ahazten.

Txoritokietako gotortegitik etxerainoko lasterka zoroan La Fuente de la

Hoja-n egiten genuen geldialdia, ur xirripa zeken hartan egaria iraintzeko. Oraindik orain pasa naiz bertatik. Inistorretan itoa dago, orduan bezain magikoa.

-Gure garaian horri Altiturri esaten ganioken!

Eta nik, ordainez, berak orain zuzen ustean Harri Zahar Parkea eta Harri Berri Auzoa esaten dituenak, guk, txipitan, Harriya Zahar eta Harriya Berri baserriak genituela argitu nion Iparragirreko nagusiari.

Jakitura asko bai baina aski ez zuen baten batek ertza kendu zion Harriyari, pentsatuz noski harria harri dela... sumatu gabe Harria hura Harriaga zela, eta leundu orde akastu egiten zuela gure oroimen minerala. Mapa ez oso zahar batean, La Paz esten zaion auzotik ez oso urrun Lapatzandegi izeneko baserria zegoela ikusi dudana jakinarazi nion baserritarrari.

-Lapatz oso belar gaiztoa dek! Eta ugaria!

Ez da harritzekoa, beraz, zainetik kendua izana guk sugandilak biltzen genituen hondakin haien izen ederra. Mugetan bizitzea zoragarria da: urrundik erabakitzen dizute zu zer ez zaren.

Hiriko
punturik
beltzenak

Donostiako bideetako puntu beltzei buruzko argazki erreportaia irakurri dut eta egilea(k) zein d(ir)en agertzen ez bada ere, zorionak erreportaiagatik!

Dena den, punturik beltzena ahaztu zaizuela eta idazten dizuet: Añorgatik Amarara bariantetik joatean, lehendabiziko tunelean sartzera zoazela N-1 errepide nagusiko karril azkarrak bat egiten du Bilbotik datorren autopistako eskubiko karrilare-

kin, bat-batean eta inolako abisurik gabe! Gainera, metro gutxi batzuk-lehenago Antiguatik datozen kottxeak N-lean sartu direnez, baina oraindik oso azkar ez doazenez, Añorgatik datozen kotxe gehienek karril azkarra hartu behar izaten dute; arriskua handitu egiten da horrela.

Bestalde: eskerrik asko Irutxuloren harpidetza horren merke jartzeagatik (2.000). Aspalditik nengoen itxaron zerrendan eta azkenean jaso ahal izango dut. Honekin batera bidaltzen dizuet nere harpidetza. Benetan aldizkari bikaina egiten ari zarete. Zorionak berriz.

KONTXI FERNANDEZ

Oharra: Gutunak ezingo dira 15 lerrokoak baino luzeagoak izan eta aldizkariak esku-bidea du laburtzeko. Aldizkariak egilearen izen deiturak, NAN eta telefonoa ezagutu beharko ditu, nahiz eta goitizen edo inizialak argitara daitezkeen.

Helbidea:

IRUTXULO, San Joan 14, 20003 DONOSTIA.

JAR ZAITEZ BEREHALA EDER
MIKROPIGMENTAZIOARI ESKER

Minik ez, kalterik ez eta guztiz higienikoa

ESTETIKA-ERABILPENAK

BEKAINAK

Moldatu eta sortu

EZPAINAK

Handitu eta nabarmendu

BEGIAK

Eyer-Liner eta betileak osatu

BESTELAKO ERABILPENAK

Gorputzeko orbanakezkutatu

Soiluneak ezkutatu

Ebakiondoak

Lehen



Ondoren



LAKSMI
Edertasuna

Fermin Calbeton 27, 1 • Tfnoa.: 43.09.90 • DONOSTIA

El telar

OIHALDENDA

Alfonso VIII, 8
Tfnoa.: 42 42 10

VDC

Infoelektronika



ORDENAGAILUEN SALMENTA
ETA KONPONKETA

Galtzaraborda biribidea 4
ORERETA • Tfnoa.: 52 56 23

TC TELE COMPUTER

Iparragirre, 20-B • Tfnoa.: 27 92 30 • DONOSTIA